BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5800

EBAZPENA, 2012ko abenduaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, Irale programan parte hartzen duten euskaltegiei 2012ko udako eta 2012-2013 ikasturtearen lehen txandako ikasleen matrikula-gastuak ordaintzeko.

Irale programa arautzen duen 1994ko urtarrilaren 28ko Aginduak (1994ko otsailaren 11ko EHAA), Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko klase-emankizunez diharduenean, honela dio bere 23. ataleko 4. pasartean: Hezkuntza Sailburuordetzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinaraziko du, aldiro-aldiro, ekitaldi jakin batean Irale programan parte hartzeko onartzen diren ikasketa-elkarteen zerrenda.

Eginbide hau zuzen eta garaiz burutu ahal izateko, Hezkuntzako sailburuordearen 2012ko uztailaren 11ko Aginduak (EHAA, 2012ko abuztuaren 24koa) 2012ko udarako eta 2012-2013 ikasturterako Irale programaren Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko ekitaldiak (konkretuki, irakastorduz kanpokoak) jakinarazi zituen, eta beraien mamikuntzan parte hartu nahi duten ikasketa-elkarteentzako deialdia zabaldu.

Agindu horren ondorioz ebazpen bi jakinarazi ditu, biak 2012ko urriaren 8koak (EHAA, 2012ko azaroaren 2koa), Hezkuntzako sailburuordeak: bata, Iraleren 2012ko udako klase-emankizunetan parte har dezaketen ikasketa-elkarteak onesten dituena eta bestea 2012-2013 ikasturtean Irale programaren Sailburuordetzaz kanpoko ikastaro-emankizunetan parte har dezaketen ikasketa-elkarteak onesten dituena.

Ebazpen horiek, beren xedapen gehigarrietan, material-prestakuntza eta zenbait kasutako joan-etorri gastuak ere zehatz arauturik dituzte.

Horren guztiaren garapenez, 2012ko udako eta 2012-2013 ikasturtearen lehen trimestreko hainbat klase-emankizun burutu dute kasuan kasuko ikasketa-elkarteek. Emandako klase-emankizunak ordaintzea dagokio, beraz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ebazpen honen eranskinean zehazten diren euskaltegi eta ikasketa-elkarteei bertan adierazitako diru-kopuruak ordaintzea, 2012ko udako eta 2012-2013 ikasturtearen lehen txandako matrikula-gastuak estaltzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematen den egunaren hurrengotik hasi eta handik hilabeteko epean.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den unetik izango da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 10a.

Hezkuntzako sailburuordea,
M.ª ANTONIA OZCARIZ RUBIO.

ERANSKINA

ARABA

Euskaltegia	Diru-laguntza
Laudioko Udal Euskaltegia	1.144,00
Euskaraz Koop. E.	8.164,80
Udaberria Elkartea	8.152,38
Hegoalde Euskaltegia	8.709,00
Asociación Cultural Ardatz	30.462,70
Oiongo Euskaltegia	471,60

GIPUZKOA

Euskaltegia	Diru-laguntza
Hitzez Euskaltegia	7.354,80
Irungo Udal Euskaltegia	654,72
Arrasateko Udal Euskaltegia	517,70
Urretxu-Zumarragako Udal Euskaltegia	501,00
Eibarko UE	18.719,12
Legazpi 6 Euskaltegia, S.L.	2.060,10
Gernika XXI, S.L.	6.685,20
Ilazki Euskaltegia, S.C.L.	3.753,00
Urrats Euskaltegia, S. Coop. Ltda.	3.569,40
Euskaraz Koop. E.	20.250,29
Huhezi, S. Coop.	220,63
Emun Koop. E.	11.459,46
Herri Jakintza Euskaltegia	1.603,80
Maizpide Euskaltegia-Lazkao	14.227,45
Ttakun Kultur Elkartea	1.045,00
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	16.597,72
Azpeitiko Udal Euskaltegia	459,00

BIZKAIA

Euskaltegia	Diru-laguntza
Aula de Cultura de Getxo (Getxoko UE)	1.271,60
Enkarterrietako UE	180,00
Txorierriko UE	1.154,04
Sopelanako UE	616,50
Mastitxu Euskaltegia-Leioako Udala	2.261,25
Portugaleteko UE	2.580,48
Trapagarango UE	360,64
Sestaoko UE	936,32
Erandioko UE	915,30
Barakaldoko Euskara Udal Erakundea	2.739,30
Basauriko UE	2.143,32
Durangoko UE	500,59
Muskizko UE	577,50
Santurtziko UE	4.764,00
Mungiako UE	1.104,10
Orixe Euskaltegia, S.A.L.-(Mikelats-Bilbo)	21.754,20
Gabriel Aresti-Txinta Koop.	48.454,40
Euskaraz Koop. E.	40.831,70
Aurten Bai-Zornotzako Barnetegia	12.722,31
Arrigorriagako UE	297,60
Juan Mateo Zabala euskaltegia	24.356,40
Bilbo Zaharra Euskaltegia	37.318,35
Ulibarri Euskaltegia	37.865,76
Gotzon Garitaonaindia Euskaltegia	462,50
Urtxintxa Eskola-Bizkaia	1.150,20
Jose Antonio Agirre Euskaltegia	849,50
Bilboko Labayru-Inst. Diocesano E.J. Labayru Bilbao	5.726,64
Euskal Irakaslegoa - Deustu unibert.	9.930,60